



ZU NIREAN, NI ZUREAN

Seve Calleja

Lurdes Auzmendiren itzulpena
Marije Garciaren marrazkiak

Desclée De Brouwer



I

HORI beste mutikoen antzekoa zen. Iritsi berria eta ikasgelako eskola-ume berri bakarrazitatea, horixe zen guztia. Besteek, horregatik, zerbait berezia bailitzan begiratzen zioten. Eta ez zen batere berezia. Hori bai, besteak baino txikiagoa zen, eserita zegoela antzematen ez bazitzaion ere. Eta nahiko bel-



tzarana zen. Eta motxilarik ez zekarren. Ez galtzerdirik. Ez liburu edo kuadernorik. Ez eta izenik ere.

“Zeinen berezia den hori!” pentsatzen zuten guztiek, baina pentsamendua hitzez adieraztera ausartu gabe.

“Hori tentela da”, pentsatzen zuten berriro ia guztiek, ez zekielako apenas irakurtzen, idazten, ez arbelera irteten, atsedeanaldietan jolas egiten, ez garrasi egiten, ezertan ere ez.

Eta horregatik, iritsi zen egunetik Hori deitzen zioten askok. Eta berak ongi iritzi zion eta bere



izena idazten ikasi zuen. Honela idazten zuen:

Mari

Mari Eli ere neska arrunt-arrunta zen. Hori bai, XL tailako arropa jazten zuen, ia bi metro luze zelako. Horregatik ia sekula ez zen inor bere ondoan esertzen, izan ere ia ez baitzen lekurik geratzen. Eta ez zen ez bizkorrena, ez ederrena eta ez ezer. Gauza bat bai, aurreko udan Ingalaterran egona zen. Eta hori gauza guztietan igartzen zitzaion: bere motxila berrian, bere arropan,



bere hitz egiteko moduan, eta batez ere “bai” esateko moduan. Ez baitzuen “bai” esaten. Nahia-go zuen “yes” esatea. Horregatik, maistrak etengabe zuzendu behar izaten zion:

—Bai, esan behar da, Bai, Bai.

Eta ikasgelan guztiak Baibai deitzen hasi zitzaizkion, nola esan behar zen ahantz ez zezan. Alabaina, berak nahiago zuen beti honela sinatzea:

Mary Elisabet

